**2023IKIE0011**

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO ESKORIATZAKO UDALAK PROZEDURA IREKI BIDEZ, HAINBAT IRIZPIDERI JARRAIKI ETA OHIKO TRAMITAZIOAREKIN EGIN BEHAR DUEN KONTRATAZIOAREN ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA.**

## I.- KONTRATUAREN HELBURUA ETA ALDERDI OROKORRAK

### 1. BALDINTZA.- Kontratuaren helburua eta beharra.

1.1.- Kontratuaren helburua ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ematea izango da espedientean dagoen dokumentazio teknikoaren arabera, kontratu izaera izango duena. Lan kopurua ez da aurrez zehazten, eta beraz, kontratuaren iraupen epean Udalak kontratistari adierazitako beharren kuantifikazioaren menpe gelditzen da.

Helburu hori Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturaren “85312000-9: ostaturik gabeko gizarte laguntzako zerbitzuak” kodeari dagokio.

1.2.- Sortak: EZ. Ez da aurreikusten sortatan lizitatzea, zerbitzu integral, homogeneo eta oso gisa hartzen delako bere xedearen izaera kontuan hartuta, baldintza teknikoen agirian aipatzen diren aurreikuspenen eta edukiaren arabera. Eta horrek egikaritzea osotasunean koordinatzeko eta zuzentzeko beharra dakar, ezinezko gerta daitekeena sortatan banatu eta hainbat kontratistak egikarituz gero.

Kasu honetan ezin da banaketarik egin, kontratua egikaritzeko zailtasuna izango zelako eta eraginkortasunik gabekoa. Kontratuaren helburu diren prestazioak bakoitza bere aldetik egiteak, hau da, horiek egiteko beharrezko koordinazioak, zaildu egiten du, ikuspuntu teknikotik, horiek egitea.

1.3.- Kontratuarekin bete nahi den beharra: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan. 22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die. Eman gura den zerbitzuarekin oinarrizko laguntza eman nahi zaie beraien etxean eta beraien komunitatean menpekotasun egoeran dauden edo menpekotasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonei eguneroko bizitza errazagoa egiteko, beraien egoera pertsonalean eta familiakoan laguntzeko, laguntza hori ezinbestekoa denean bizi kalitatea izan eta lana eta familia bateratzeko, bereziki, emakumeen kasuan.

Era berean, lanean etekin egokia eta probetxugarria lortzeko lan giro ona eta lan baldintzak oinarrizkoak direla kontuan izanik, eta baita ere zerbitzua ematen duten profesionalen laneko gogobetetasunak eragin zuzena duela zerbitzuaren kalitatean, gutxieneko lan baldintza batzuk indartzea nahi dira kalitatea hobetzeko eta lana eta familia bateratzeko.

### 2. BALDINTZA. Kontratatzailearen profila.

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazioa herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, eta bestelako publizitate bideak erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek kontratatzailearen profila du. Bertara sartzeko ondorengo orrian araututakoari jarraitu beharko zaio: www.contratación.euskadi.eus

**3. BALDINTZA. Egikaritze epea.**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du 2024ko urtarrilaren 16tik kontatzen hasita, eta beste URTE BETEZ luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BI URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, kontratua amaitzerakoan zerbitzua ematen jarraituko dela bermatuko duen kontratu berria oraindik formalizatu gabe egongo balitz esleipen prozedura berrian izandako gertaera aurreikusi ezinezkoengatik kontratazio organoarentzat, eta zerbitzua ez eteteko interes publikoko arrazoiak izan, kontratu hau kontratu berria egikaritzen hasi arte luzatu ahal izango da, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, eta betiere, kontratu berriaren lizitaziorako iragarkia gutxienez kontratu honen amaiera data baino hiru hilabete lehenago argitaratu baldin bada.

**4. BALDINTZA. Kontratuari kalkulatutako balioa eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.**

Lizitaziorako ondoren esango diren tipoak ezartzen dira, BEZa gabe. Prezio horiek behera hobetu ahal izango dituzte enpresa lizitatzaileek beraien eskaintzetan. Eskaintzak aurkezteko 10. baldintzan ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharko dira eskaintzak.

- Etxe etxeko laguntzailearen ordua: 29 €, BEZa gabe.

- Etxe etxeko laguntzailearen jaiegunetako ordua: 33,66 €, BEZa gabe.

Kontratuari kalkulatutako eta gehieneko aurrekontua lehen urterako 307.301,16 €-koa da (BEZa gabe), urtean 10.496 orduko zerbitzuan oinarritutako kalkuluarekin; baina, ez da bermatzen zerbitzua prezio horretan emango denik, eta esleipena eskainitako prezio unitarioak kontuan izanda egingo da.

Kontratu osorako kalkulatutako aurrekontua, luzapenak barne, horrelakorik egongo balitz, 614.602,32 €-koa da (307.301,16 € x 2 urte), BEZa gabe.

Kontratua esleitu ondoren, prezioan sartuta egongo dira kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.

**5. BALDINTZA. Kontratuaren prezioa.**

Kontratuaren prezioa esleipenekoa izango da, eta ezingo du gainditu Administrazioak ezarritako lizitazio tipoa.

Ondorio guztietarako ulertu beharko da kontratuaren prezioan sartuta daudela kontratatutako zerbitzua normal betetzeko enpresa kontratistak egin beharko dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak, eta baita indarrean dauden xedapenen arabera ezarri ahal diren beste edozein tasa eta udaleko, lurralde historikoko zein estatuko edozein motako zerga eta lizentziak ere.

**6. BALDINTZA. Kreditua izatea.**

Behar besteko aurrekontu kreditua dago kontratua betetzetik sortutako Udalaren betebeharrei aurre egiteko.

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

**7. BALDINTZA. Prezioak berraztertzeko erregimena.**

Martxoaren 30eko 2/2015 Legea –Espainiako ekonomiaren desindexazioarena– garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta sektore publikoko kontratuen prezioa berraztertzeko baldintzak arautzen dituen SPKLren 103. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honetan ez da aplikagarria aipatutako berrazterketa.

## II.- KONTRATAZIOA

**8. BALDINTZA. Esleipena egiteko prozedura.**

2017ko SPKLren 156. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, hainbat esleipen irizpideri jarraiki, baldintza orri honetako 16. baldintzan ezarritakoaren arabera.

**9. BALDINTZA. Kontratatzeko gaitasuna eta egiaztatzea.**

Kontratu honen esleipenean parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, indibidualki edo aldi baterako enpresari-batasuna eratuta, baldin eta kontratatzeko debekuren bat ez badute eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badituzte (edo, hala badagokio, behar bezala sailkatuta baldin badaude).

Aurreko paragrafoan esandakoaren kalterik gabe, berariaz ezartzen zaie kontratatzeko debekua ondorengo egoeraren batean dauden pertsonei edota erakundeei:

- Zigor irmoa jaso izana arau-hauste larria egiteagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera, arlo profesionalean, lehia faltsutzearenean, lan-merkatuan integratzearenean, aukera berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonak ez baztertzekoarenean eta atzerritarrenean.
- Zigor irmoa jaso izana arau-hauste oso larria egiteagatik lan edo gizarte arloan, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baita testu horretako 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste larriarengatik ere.
- Bereziki, ezingo dute kontratua egin ezta lizitazioan parte hartu ere lan harreman indibidual edota kolektiboen arloan arau-hauste oso larria egiteagatik zigor irmoa jasotako pertsona fisiko edo juridikoek, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bateginaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, zehazki, 8. artikuluko 13. idatz-zatia ez betetzeagatik enpresaren zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren arloan sexu-jazarpena gertatutakoan.

Gainera, enpresa esleipendunak beraien helburuak edo jarduerak kontratuaren helburuarekin harreman zuzena duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira, eta kontratua behar bezala betetzeko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak izan beharko dituzte.

Enpresariek, gainera, kontratu honen gaia den prestazioa edo jarduera burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Europako Batasunetik kanpoko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.

**10. BALDINTZA. Sailkapena eta kaudimena.**

Zerbitzu kontratua denez, SPKLren 77. artikuluaren arabera, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik eskatzen.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesionala edo teknikoa: akreditazio dokumentala:

A.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa: Lizitatzailearen edo izangaiaren urteko negozio bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio bolumen handieneko urtekoa aintzat hartuta, kontratuari kalkulatutako urteko balioaren % 70a izan beharko da gutxienez.

A.1.- Arrisku profesionalen kalte-ordainen asegurua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Aseguru hori baldintza agiri honetan eskatutako kopuruarengatik edo handiagoagatik izan beharko da.

B.- Kaudimen teknikoa eta profesionala:

B.1.- Azken hiru urteetan egindako etxez etxeko laguntza zerbitzuen zerrenda, eta bertan adierazita diru zenbatekoa, datak eta publikoak edo pribatuak izan diren. Bakoitzari buruzko ziurtagiriak ere erantsi beharko dira.

Ez dira onartuko enpresa lizitatzaileen proposamenik etxez etxeko laguntzan gutxienez urteko 10.200 ordu egin izana ez badute egiaztatzen azken hiru urte horietako urteren batean.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera; betiere, egiaztatzen baldin badu kontratuaren egikaritze denboran kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta horiek utzitako erakundeak ez baldin badu kontratatzeko inolako debekurik.

Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako batuketetan parte hartzen duten enpresariek aldi baterako batuketatik kanpoko kaudimen eta baliabidetara jo ahal izango dute.

B.2.- Zerbitzuari atxikitako langileei dagokienez, honako hau eskatzen da:

- Enpresa esleipendunaren ordezkariak/arduradunak Europako Erreferentzia Markoaren C1 (3. HE) baliokideko euskara-maila egiaztatu beharko du.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua zuzenean ematen duten langileen % 50ek egiaztatu beharko du Europako Erreferentzia Esparruko B 2 (2. HE) ahozko mailaren baliokidea duela.

## 11. BALDINTZA. Proposamenen aurkezpena, era eta edukia.

### 11.1. Interesdunen proposamenak

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten baldintza agiri eta dokumentuetara egokitu beharko dira, eta behin proposamenak aurkeztuta, enpresariak inolako baldintzarik gabe onartzen ditu baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreparorik gabe; eta era berean, baimena ematen die kontratazio mahaiari eta organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Orokorrean edo Europako Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak jarriko dira ireki arte izaera hori gorde dezaten bermatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu edo aldi baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide baldin bada.

Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

### 11.2 Publizitatea.

Kontratuaren lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean (www.eskoriatza.eus).

### 11.3 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea.

Lizitazio hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira plataforma horren bidez, 35 egun naturaleko epean aipatutako iragarkia argitaratzen den biharamunetik hasita. EBAOra noiz bidali den Udalaren Kontratatzailearen Profileko iragarkian adieraziko da.

Udal honen kontratatzailearen profilera ondorengo helbidetik sartu ahal izango da: www.eskoriatza.eus. Leku horretan eskuratu ahal izango dira ere baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria. Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz lizitatzaileek eskatutako informazio gehigarria proposamenak jasotzeko data iraungi aurreko sei egun baino lehenago emango zaie, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 136.2 eta 136.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan ematerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu

egingo da, hautagai guztiek eskaintzak egiteko beharrezkoa duten informazio guztia jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Lizitazio honetan ez dira onartuko aipatutako bitarteko elektronikoetatik kanpo aurkeztutako eskaintzak. Eskaintzak elektronikoki egiteko beharrezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada ondo ikusi, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta, une horretatik, gehienez ere 24 orduko epea izango du akatsa zuen fitxategiko dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Berriz aurkeztutako dokumentu horrek ezingo du inolako aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako originalarekiko. Kontratazio Organoak ikusten badu dokumentuak aldaketarik izan duela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak administrazio baldintza partikularren agiri honetan jasotakoari egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen diela Kontratazio Mahai eta Organoari EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan jasotako datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kalterik gabe. Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu, eta ezta aldi baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide izan ere. Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

Zalantzaren bat izanez gero, hona jo daiteke:

GIZARTE ZERBITZUAK

Fernando Eskoriatza plaza z/g –20540 ESKORIATZA

Tel.: 943 714407 / Faxa: 943 714042

E-posta: gizarte@eskoriatza.eus

Kontratistaren Profila: www.eskoriatza.eus

**11.4.- Proposamenak aurkezteak dakarren ondorioak.**

Proposamenak aurkeztuta, enpresa lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen ditu baldintza agiri honetako eta baldintza teknikoen agiriko baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreparorik gabe; eta era berean, baimena ematen die kontratazio mahaiari eta organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Orokorrean edo Europako Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Baldintza agiriak ez onartzeak eskaintza baztertzea dakar ezinbestean.

SPKLren 158.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitatzaileek ezingo dute beraien proposamena kendu bi hilabeteko epean. Epea hori 15 egun baliodunetan luzatuko da SPKLren 149. artikuluak ezohiko beherapendun eskaintzei buruz aipatzen dituen tramiteekin jarraitzea beharrezkoa denean.

Proposamenen bat bidegabeki kentzeak dolo, iruzur edo arduragabekeria egon delako, administrazio publikoekin ezin kontratatzea ekarriko dio lizitatzaileari SPKLren 71.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta baita behin-behineko bermea konfiskatzea ere, horrelakorik eskatu izan balitz, SPKLren 106.1 artikuluaren arabera.

***11.5. Enpresa lizitatzaileentzako informazioa***

Kontratazio organoak baldintza agiriei eta gainerako dokumentu osagarriei buruz eskatutako informazio gehigarria emango die lizitazioan interesa duten guztiei, gehienez ere eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 6 egun lehenago; baldin eta, gutxienez, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 12 egun lehenago egin bada eskaria (2017ko SPKLren 138.3 artikulua). Eskaera helbide elektroniko honetan egin beharko da: udala@eskoriatza.eus.

Baldintza agiriei edo gainerako dokumentazioari buruz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean argitaratuz gero, erantzunek izaera loteslea izango dute.

**11.6. Konfidentzialtasuna.**

Kontratazio organoak ez du lizitatzaileek emandako informaziorik zabalduko, lizitatzaileek informazio hori isilpekotzat jo baldin badute eskaintza aurkezteko unean. Baldintza agiri honetako III. eranskinean jasotzen da aitorpen eredua.

Konfidentzialtasun izaerak, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten die, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta edukia lehia faltsutzeko erabili daitekeen beste edozein informaziori, bai lizitazio honetan bai hurrengoetan.

Kontratazio organoak eta bere menpeko zerbitzuek isilpekotasunez aritzeko duten betebeharra ezingo da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osoari eta, hala balitz, ezta kontratazio organoak lizitazioan zehar zuzenean edo zeharka sortutako txosten eta dokumentuen eduki osoari ere. Isilpekotasunez aritzeko betebeharra bakarrik zabalpen mugatua duten dokumentuetara hedatu daiteke, eta inolaz ere ez jendearentzat eskuragarri dauden dokumentuetara.

Isilpekotasun betebeharrak ezingo du galarazi egindako kontratuetan isilpekoak ez diren zatiak publikoki zabaltzea, hala nola, kitapena, obra egikaritzeko azken epeak, kontratatu eta azpikontratatutako enpresak eta, edozein modutan ere, eskaintzaren funtsezko zatiak eta kontratuari ondoren egindako aldaketak, betiere, Datu Pertsonalak Babesteko legedian ezarritakoa errespetatuz.

**11.7 Proposamenak aurkezteko era.**

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta eta gutun-azal bakoitzerako baldintza honetan zehaztuko den edukiarekin.

**“A” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.**

Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu:

- Gaitutako helbide elektroniko bat.

Gaitutako helbide elektroniko bat izendatu beharko da, SPKLren hamabosgarren xedapen

gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente honetan sortutako jakinarazpenak egiteko.

- Lizitatzailearen erantzukizunpeko deklarazioa.

Deklarazio horretan lizitatzaileak adierazi beharko du Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita kontratua eskuratzeko baldintza agiri honetan jasotako baldintzak ere, bereziki, bertako 16. baldintzakoak. Deklarazioa Agiri Europar Bakarraren formularioaren arabera egin beharko da.

Edozein kasutan ere, prozedura ondo bideratuko dela bermatzeko, esleipena egin baino lehen, kontratazio organoak edo mahaiak edozein unetan eska dezake lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko lukeen dokumentazioa.

- Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) aurkezten diren operadore ekonomikoen kasuan, elkartekide bakoitzak bere erantzukizunpeko deklarazioa egin beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera, bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.
- Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.
- Baldintza teknikoen agirian eskatutako hizkuntza-gaitasuna duten langileak zerbitzuari atxikitzeko konpromisoa, V. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eta baldintza agiri honek eskatutako izaera, gaitasun eta kaudimen betekizunak.

**“B” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- BALIO-JUDIZIOAREN ARABERAKO BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Gutun-azalak balio-judizioaren menpeko balorazio irizpideei buruz baldintza-agiri honetako 16. baldintzan aipatutako dokumentuak jasoko ditu.

**“C” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK.**

Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu:

- II. eranskinaren arabera egindako proposamen ekonomikoa. Eskaintza horretan prestazio ekonomikoaren kostua xehatu beharko da eranskinean adierazitako moduan.
- Enpresaren euskara plana.VI. Eranskina.
- Kontziliazio gaietan enpresak neurriak aplikatu behar baditu, horiek zehaztea. VII. eranskina.
- Kontratuari atxikitako langileak kontratu mugagabeak izateko konpromisoa, portzentajea adierazita. VIII. Eranskina.

## 12. BALDINTZA. Kontratazio mahaia.

Eskaintzak baloratzeko eta dokumentazio administratiboa kalifikatzeko organo eskuduna Kontratazio Mahaia izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan jasotakoaren arabera jardungo du.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:

| | |
|---|---|
| Mahaiburua: | Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia. |
| Mahaikideak: | Udal gizarte langilea edo berak eskuordetutako funtzionarioa. |
| | Ekonomia arloko udal teknikaria edo berak eskuordetutako funtzionarioa. |
| | Udal idazkari-kontuhartzailea edo berak eskuordetutako funtzionarioa. |
| Idazkaria: | Udal idazkari-kontuhartzailea edo berak eskuordetutako funtzionario bat. |

## 13. BALDINTZA. Dokumentazioa sailkatzea, proposamenak irekitzea eta dokumentazioa eskatzea.

### 1.- "A" gutun-azala irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea.

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, kontratazio mahaiak lizitazaileek, garaiz eta forman, "A" gutun-azalean, aurkeztutako dokumentazio administratiboa ireki eta kalifikatuko du. Mahaiak akats edo omisio konpongarriak antzematen baditu aurkeztutako dokumentazioan, alderdi interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea eman horiek zuzentzeko. Era berean, aurkeztutakoaren dokumentazio osagarria edo argigarria aurkezteko eskatu ahal izango die mahaiak lizitatzaileei, eta horretarako 5 egun naturaleko epea eman.

2.- Jakinarazpenak bitarteko elektroniko bidez egingo zaizkie interesdunei.

3.- Azkenik, kontratazio mahaiak lehiaketarako onartutako eta baztertutako lizitatzaileak erabakiko ditu eta bazterketaren arrazoiak adierazi.

### 2.- "B" gutun-azalak ireki eta aztertzea.

1.-"B" gutun-azalak ekitaldi publikoan irekiko dira beraien edukia 16. baldintzan adierazitako irizpideen arabera ebaluatzeko.

2.- Gutun-azalak irekitzeko ekitaldiaren hasieran berariaz adieraziko dira proposamenei mahaiak emandako kalifikazioak, lizitaziora onartutakoak eta baztertutakoak identifikatuz, eta azken kasu horretan, bazterketaren arrazoiak adieraziz.

3.- Lizitazio prozeduratik kanpo geldituko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta "B" gutun-azalean formula bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa ("C" gutun-azala) sartzen dutenak.

### 3.- "C" gutun-azalak ireki eta aztertzea.

1.- "C" gutun-azalak ekitaldi publikoan irekiko dira.

2.- Ekitaldi horretan “B” gutun-azaleko dokumentazioaren balorazioaren emaitza ezagutaraziko da.

3.- Jarraian, onartutako lizitatzaileen “C” gutun-azalak irekiko ditu kontratazio mahaiak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

4.- C gutun-azal horietako dokumentazioa 16. baldintzan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

5.- Dena den, irizpide horiek “B” gutun-azaleko dokumentazioa baloratu ondoren ebaluatuko dira beti.

**14. BALDINTZA. Kontratazio mahaiaren aktak.**

Aurreko idatz-zatien arabera egindako guztia jasoko da dagozkien aktetan, eta bertan jasoko dira ere prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak.

**15. BALDINTZA.- Kontratazio mahaiaren ekitaldien emaitzei publizitatea ematea eta dagozkien lizitatzaileei jakinaraztea.**

15.1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena eta bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak bidaliko zaizkie dagozkien lizitatzaileei.

15.2.- Lizitatzaile bat kanporatzeko egintza ekitaldi publikoan bertan jakinarazi ahalko zaio lizitatzaile horri, egintza horretan dagokion enpresa ordezkatzen duena bertan baldin badago edo, hura ez balego, Herri Administrazioen Administrazioaren Jardunbide Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako prozeduren arabera.

15.3.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Kontratazio Publikoa Euskadin plataformaren egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

**16. BALDINTZA. Esleipen irizpideak.**

16.1- Kontratua esleitzeko nahiz haren haztapena kontuan hartzeko irizpideak, oinarrizko eskaintzan nahiz, hala badagokio, aldaeretan edo hobekuntzetan aplikatzekoak, 4. puntuan adierazitakoak izango dira.

16.2.- Ez dira, inolaz ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko atal bakoitzerako baldintza-agiri honetan ezarritako gehieneko luze-laburra gainditzen duten proposamenak (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe). Gehieneko luzera gaindituz gero, onartutako gehieneko orri kopurura arte baloratuko da edukia.

16.3.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu aurkezten formula aritmetikoak aplikatu gabe baloratzen diren esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inolaz ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

**16.4.- IRIZPIDEAK**:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 63 puntu (C gutun-azalean sartu beharrekoa).**

1- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 50 puntu. (C gutun-azalean sartu beharrekoa).

1.1.- Laneguneko orduko prezioaren eskaintza ekonomikoa: 49 puntura arte.

49 puntu emango zaizkio orduko prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

Lp= Pm/Le x 49

Honako hauek izanik:

Lp: lizitatzailearen puntuazioa
Pm: prezio merkeena
Le: lizitatzailearen eskaintza

1.2.- Jaieguneko orduko prezioaren eskaintza ekonomikoa: Gehienez puntu bat.

1 puntu emango zaio jai eguneko orduko prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa.

Lp= Pm/Le x 1

Honako hauek izanik:

Lp: lizitatzailearen puntuazioa
Pm: prezio merkeena
Le: lizitatzailearen eskaintza

Eskaintza ezohikotzat edo neurrigabetzat joko da, eta lizitaziotik kanpo utzi ahal izango da, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino ehuneko 10 baxuagoa bada. Horrela jotzeko, aurrez informazioa eskatu behar zaie kasu horretan ustez dauden lizitatzaile guztiei, eta dagokion zerbitzuaren laguntza teknikoa ere eskatu beharko da.

Edozelan ere, oso baxuak izateagatik ezohikoak direla egiaztatzen diren eskaintzak baztertuko dira azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dutelako betetzen estatuan edo nazioartean aplikagarri diren ingurumen arloko, gizarte arloko eta lan arloko betebeharrak, arloetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Edozein modutan, ulertu beharko da emandako justifikazioak ez duela behar beste azaldu lizitatzaileek proposatutako prezioen edo kosteen maila baxua, justifikazioa osatugabea denean edo ikuspuntu teknikotik, juridikotik edo ekonomikotik hipotesi edo jarduera ezegokietan oinarrituta dagoenean.

2.- LANPOSTUAREN EGONKORTASUNA: 5 PUNTU (C gutun-azalean sartu beharrekoa).

2.1. Kontratuari atxikitako langileetatik gutxienez % 80ak kontratu mugagabeak izateko konpromisoa hartzen duten eskaintzei 5 puntu emango zaizkie.

3.- ENPRESAREN NEURRI ZEHATZAK HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ARLOAN: 3 PUNTU. (C gutun-azalean sartu beharrekoa).

3.1.- Enpresak euskara plana badu, 3 puntu emango dira.

4.- KONTZILIAZIO ARLOKO NEURRIAK: 5 PUNTU (C gutun-azalean sartu beharrekoa).

4.1.- 5 puntura arte emango dira kontziliazioa hobetzeko neurriak aplikatzeagatik.

4.1.1. Adingabeak, mendekotasuna dutenak zaintzeagatik lanaldia murrizteko hobekuntzak: 1 puntu.
4.1.2.: Ordaindu gabeko baimenak: Eszedentziak, soldatarik gabeko oporrak, soldatarik gabeko egunak: 1 puntu
4.1.3. Ordaindutako baimenak zaintzarengatik: Ikastetxeko bilerak, aurreko eta ondorengo ahaideen gaixotasuna, mendetasuna duten pertsonak medikura laguntzea eta abar: 1 puntu
4.1.4. Amatasun baimenak luzatzea: 1 puntu
4.1.5. Ordutegiaren malgutasuna: 1 puntu.

**BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO IRIZPIDEAK: 37 puntu (B gutun-azalean sartu beharrekoa).**

**1.- TXOSTEN TEKNIKOA: 37 puntu. (B gutun-azalean sartu beharrekoa).**

Lizitatzaileek aurkeztutako proiektuetako ondorengo alderdiak baloratuko dira:

1.1. Lan programa: 30 puntu.

Zati hau ondorengo zatitan banatzen da:

1.1.1. Lanaren antolaketa: 8 puntu

Oinarrizkotzat jotzen da enpresa esleipendunak enpresak aurrez egindako proiektu baten arabera ematea zerbitzua, betiere, Gizarte Zerbitzuek kontratua betetze aldian hobekuntzak edo aldaketak erabakitzearen kaltetan gabe.

1.1.2. Laguntza zerbitzuko langileen organigrama: 4 puntu

Enpresa esleipenduneko langileek enpresa barruko organigrama baten arabera lan egitea baloratuko da. Organigrama eraginkorra izan beharko da zerbitzuaren berezko funtzioak betetzeko eta aginte maila bakoitzaren ardurak jaso beharko ditu.

1.1.3. Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko koordinazioa: 10 puntu

Zerbitzua azpikontratatutako enpresa baten bidez emateak, besteak beste, dakar ez dela lan harremanik egongo enpresako langileen eta Udalaren artean. Hala ere, zerbitzua ondo kudeatzeko beharrezko da komunikazio, koordinazio eta ikuskapen bide iraunkorrak eta eraginkorrak egotea Udalaren eta enpresaren artean.

1.1.4. Laguntza osoa emateko programak: 3 puntu

Baldintza teknikoen agiriak ezartzen ditu zeintzuk diren enpresa esleipendunaren langileek egin beharreko funtzioak. Horregatik, ez dira baloratuko baldintza agiri horretan jasotako funtzioak sartzen dituzten proposamenak. Aitzitik, baldintza agirian jaso ez diren funtzioak, eta zerbituaren kalitatea hobetzeko direla jotzen direnak, baloratuko dira, esaterako, arreta osoa emateko programak ezartzea.

1.1.5. Lan-poltsa: 5 puntu

Enpresa kontratistaren betebeharra bada ere uneoro langileak izatea Udalaren beharrak asetzeko, baloratu egingo da proiektuan horretarako lan-poltsa bat izatea, horrela behar beste bermatuta egongo litzatekeelako betebehar hori.

1.2. Enpresa antolaketa: 7 puntu

1.2.1. Etengabeko prestakuntza programa: 5 puntu

Arreta jasotzen duten herritarren beharren aldaketei erantzungo dien prestakuntza programa baloratuko da, urteko ordu kopurua, programaren edukia, langileei emandako materiala eta abar.

1.2.2. Baliabide teknikoak: 2 puntu

Baldintza teknikoen agiriak dio enpresa kontratistak bere lana egoki egiteko beharrezko elementu materialak emango dizkiela etxez etxeko laguntzaileei. Beraz, lizitazioan parte hartzen duten enpresek dituzten, eta zerbitzua kalitate hobeaz ematera eragingo duten, baliabide tekniko materialak baloratuko dira bakarrik (langileentzako lokala, informatika ekipoak eta abar).

**17. BALDINTZA. Eskaintzen balorazioa.**

1.- Bere zereginak betetze aldera, mahaiak egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eska ditzake, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertuak izango dira.

**18. BALDINTZA. Eskaintzak argitzea.**

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko azalpenak emateko edo, baleude, idazketan hautemandako akats material nabarmenak zuzentzeko eska diezaioke lizitatzaileari, betiere, tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta

eskaintzako xehetasunak aldatzeko aukerarik izan gabe. Horren guztiorren berri espedientean jaso beharko da dokumentu bidez (SPKLren 95. artikulua).

**19. BALDINTZA. Ezohiko beherapendun eskaintzak**

1.- Neurriz kanpoko eskaintzatzat edo ezohiko beherapenduntzat joko dira ondorengo kasuetako proposamenak:

- Lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioko aurrekontua baino 25 unitateko portzentajean txikiagoa baldin bada.

- Bi lizitatzaile daudenean, beherapen portzentajea batetik bestera 20 unitate baino handiagoa baldin bada.

- Gainerakoetan, onartutako eskaintzen batez bestekoaren % 10 baino beherapen handiagoa dutenak. Egoera hori ez da izango baztertzeko arrazoia, betiere lizitatzaileak nahikoa justifikatzen badu bere proposamena bideragarria dela (egoki iritzitako kalkuluak eta argudioak aurkeztuz).

Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira. Proposamenaren bideragarritasuna ez baldin bada egiaztatzen, ez da aintzat hartuko eta formula ez da aldatuko.

2.- Ustez ezohiko beherapena duen proposamen bat identifikatutakoan, kontratazio mahaiak edo, horrelakorik ezean, kontratazio organoak, lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatuko dio/e eskaintzak ezohiko beherapena izatea eragin duten proposameneko parametroak justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLaren 149. artikuluko 4-6 bitarteko ataletan aurreikusitako prozedura izapidetuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

**20. BALDINTZA. Prozeduran ordezkatzea**

Prozedura bat izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik, enpresako ondare bat edo jardueraren adar bat fusionatu, banatu edo eskualdatzeko eragiketaren bat gertatuko balitz, enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren posizioa hartuko du prozeduran, haren ordez, sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortuak, banaketaren onuradunak edo enpresaren ondarea edo dagokion jarduera-adarra baitaratzen duenak, betiere, gaitasunarekin eta kontratatzeko debekurik ez izatearekin lotutako baldintzak betetzen baditu eta egiaztatzen baditu bere kaudimena eta esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko baldintza administratibo berezien agirian eskatzen diren baldintzetan sailkatuta dagoela.

**21. BALDINTZA. Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta Administrazioak esleipen prozeduran atzera egitea.**

2017ko SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakia hartu dezake kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik.

Ez esleitzeko edo kontratua ez egiteko erabakia espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik hartu ahal izango da bakarrik.

Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatzeko edo esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar du, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia.

1.- Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko edo SPKLren 152. artikuluko baldintzetan esleipen prozeduran atzera egiteko erabakia lizitatzaileei jakinarazi beharko zaie eta baita Europako Batzordeari ere kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri denean.

## 22. BALDINTZA. Eskaintzen sailkapena eta dokumentazio eskaera.

### 22.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena

22.1.1.- Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio mahaiak, aktarekin batera, balorazioa eta esleipen proposamena bidaliko dizkio kontratazio organoari. Esleipen proposamen horretan eskaintzak onenetik txarrenera zerrendatuta agertu beharko dira, 16. baldintzan adierazitako irizpideen arabera bakoitzak lortutako puntuekin, eta kalitate-prezio aldetik onena identifikatuta.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta kontratua formalizatu arte ez du inolako eskubiderik izango Administrazioaren aurrean.

### 22.2.- Kalitate-prezio aldetik eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko beharkizunen egiaztagiriak aurkeztea.

22.2.1.- Mahaiak kontratazio organoari proposamena eginda, dagokien zerbitzuek errekerimendua egingo diote eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari kontratua esleitzeko beharrezkotzat jotzen diren ondorengo dokumentuak aurkez ditzan errekerimendua jasotzen duen biharamunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean.

Dokumentazio hori ondorengoa da:

1.- **Jarduteko gaitasuna eta jarduera esparrua egiaztatzeko dokumentuak.** Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturiko -inskribatzea derrigorrezkoa denean, aplikatu dakiokeen merkataritza legeriaren arabera- eraketa edo, hala dagokionean, aldaketa eskritura aurkeztu beharko da. Eskakizun hori ezin bada eskatu, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

   Pertsona juridikoei kontratuak esleituko zaizkie, bakar bakarrik, kontratuen prestazioak sartuta badaude aipatutako pertsona juridikoek, beren estatutu edo sorrera arauen arabera, berezko dituzten helburu, xede edo jarduera eremuen barruan. Hori egiaztaturik geratu beharko da helarazitako dokumentazioan.

   Enpresa pertsona bakarrarena denean, nortasun agiria edo haren balioa duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.

2.- **Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio.** Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.

Ordezkari horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion erakunde administratiboak konpultsatua.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Alabaina, Egintza jakin baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatzerik, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta profesionala edo teknikoa.** Eskatutako sailkapena edo, hala badagokio, bere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzea SPKLaren 87. eta 89. artikuluetan aurreikusitako eta baldintza agiri honetako 10. baldintzan jasotako bideetako bat erabiliz.

Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, horien kaudimena zehazte aldera, hartako kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira (HAKLAOaren 24.1. artikulua).

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalak diren lizitatzaileek, Espainian sailkatu gabe daudenean, sailkapenaren ordez aurkeztu beharko dute beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere SPKLren 87. eta 88. artikuluetan jasotakoaren arabera eta kontratazio organoak baldintza agiri honetako 10. baldintzan ezarritako bitartekoak erabilita.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek kontratatzeko baimena duten enpresariei buruz ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emandako inskripzio ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria ematen duen estatu kide batean kokatutako enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela horietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez.

Era berean, berdin uste izango da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero, baldin eta horiek betetzen badituzte lizitatzailea kokatutako estatu kideko legediaren arabera emandako ziurtapen arau europarrak.

Aurreko atalean aipatutako dokumentuetan enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea eta sailkapena lortzea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dira.

4.- **Kanpoko baliabideen bidezko kaudimena egiaztatzeko** (SPKLren 75. artikulua), erakunde bien idatzizko konpromisoa aurkeztuta frogatu beharko da benetan dituztela giza baliabideak eta baliabide materialak kontratua egikaritzeko.

Lizitatzaileak bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztutako baliabide berekin egikarituko du

kontratua. Aurreikusi ezindako arrazoiak sortu izanagatik horiek ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere administrazioak baimenduta.

5.- **Lizitatzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiari buruzko adierazpena.** Lizitatzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duten, azpikontratazioaren diru zenbatekoa ehuneko gisa adierazita eta lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta (SPKLren 215. artikulua).

6.- **Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari buruzko ziurtagiriak.**

7.- **Berdintasun-plan bat izatea justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko dute 250 langile baino gehiago dituzten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Lortu beharreko berdintasun helburu zehatzak eta horiek lortzeko hartu beharreko estrategiak eta jardunak finkatuko dira plan horretan, eta sistema eraginkorrak ezarriko dira finkatutako helburuei jarraipena egin eta horiek ebaluatzeko.

8.- **Plantillako langile kopuru osoari buruzko zein langile finko desgaituen kopuruari buruzko adierazpena.** 50 langile edo gehiago dituzten enpresek % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostuen kuota betetzen dutela ziurtatzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, edo modu osagarrian edo subsidiarioki, har daitezkeen neurri alternatiboak betetzen dituztela, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haiek gizarteratzearen lege orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen nahiz lege hori garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

9.- **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren mendeko jarduerak egiten direnean:** urteko ekitaldiko alta, edo azken erreziboa, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala badagokio, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

10.- **Hala badagokio, bidezkoa den behin betiko bermea eratzea.** Honela gordailatu ahal izango da:

- Ondorengo banku-konturen batean diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, jarritako bermea egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.

  KUTXABANK: ES78 2095 5038 4910 6002 4634
  LABORAL KUTXA: ES68 3035 0044 8504 4090 0025
  SANTANDER: ES80 0049 0721 5620 1020 1821

- Kontratazio organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean.

**11.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**, ustiapenekoa, patronalekoa, gurutzatua eta amaitutako lanena eginda izatearen agiria. Eskoriatzako Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, baina hirugarrenen izaera galdu gabe.

**12.-** Kontratuaren helburu den jarduera egingo duten langileei aplikatuko zaien **hitzarmen kolektiboa adierazi beharko da.**

**13.- Zerbitzura atxikitako langile guztien CVa.**

**14.- Zerbitzuari atxikiko zaizkion langile guztiek duten euskara-maila adieraztea eta egiaztagiriak aurkeztea.** Maila egiaztatu ezin duenak Udalak horretarako deitzen duen proba egin ahal izango du. Azken kasu horretan, proba hori egiteko eskabidea aurkeztu beharko da, enpresak errekerimendua jaso eta hurrengo 3 egun balioduneko epean, VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Kontratua esleitzeko, aldez aurretik egiaztatu beharko da, Udalak egindako ziurtagiri eta/edo probaren bidez, zerbitzura atxikitako langileen % 50ek eta delegatuak/arduradunak baldintza teknikoen agirian eskatzen den hizkuntza-gaitasuna dutela.

**22.2.2.-** Aurreko guztia esanda, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Orokorrean edo Estatukoan inskribatuta izatearen ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzaileak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, ez du aurkeztu beharko erregistroko inskripzioan jasotako gorabeherak egiaztatzeko dokumenturik.

Erregistro bi horietako batean inskribatua izatearen ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2. eta 96. artikuluetan eta SPKLa partzialki garatzeko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako eraginak izango ditu.

Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera, bertan adierazitako egoerak aldatu ez direla adierazten duen erantzukizunpeko aitorpena ere gehitu beharko da.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioan ez denean jasotzen egiaztatu beharreko eskakizunen bat, SPKLren aurreikusitako bideetako batetik justifikatu beharko du enpresak.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dagoenean, edo Europako Batasuneko estatu kide bateko datu basean agertzen denean enpresaren espediente birtual, dokumentu elektronikoen biltegiratze sistema edo aurrekalifikazio sistema bezala, eta horiek doan eskuragarri egon aipatutako organoentzat, ez da beharrezkoa izango leku horietan izena emanda dagoela justifikatzeko dokumenturik edo dokumentu bidezko beste frogarik aurkeztea. Bakarrik, lizitatzaileak berariaz adierazi beharko du zein erregistrotan edo datu basean dagoen inskribatuta.

**22.2.3.-** Aurreko bi ataletako dokumentazioa ezarritako epean behar bezala aurkezten ez bada,

ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3a eskatuko zaio, BEZa gabe, zehapen kontzeptuan, behin-behineko bermetik, eratuta egongo balitz, kobratuko dena lehendabizi.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki (SPKLren 150.2 artikulua).

**22.2.4.**- Baldintza honetan adierazitakoa epe barruan betetzen ez duen lizitatzaileari -dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu- kontratatzeko galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**23. BALDINTZA. Behin betiko bermea.**

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio organoaren eskura. Berme hori lizitatzaileak, balio erantsiaren zerga kenduta, eskainitako azken prezioaren % 5a izango da. Bermea jarri dela egiaztatzeko 10 egun balioduneko epea izango da komunikazioa bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Dena den, behin betiko bermea 2017ko SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzuteko izango da. Kontzeptu horien barruan dago kontratuaren helburu diren zerbitzuak oker betetzeagatik hirugarrenei sortutako kalte eta galerengatik kalte-ordaina ordaintzeko kontratistak duen betebeharra ez betetzea, 2017ko SPKLren 196. artikuluan jasoa.

Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako moduetako batean jarri beharko da.

Kontratistari eska dakizkion zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermetik kendutakoan, kontratistak bermea berriz jarri edo handitu egin beharko du dagokion zenbatekoan. Horretarako 15 eguneko epea izango du bermetik dagokiona kentzen den egunetik kontatzen hasita, eta bermea berriz ez jartzea edo handitzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.

Kontratuan egindako aldaketaren batengatik kontratuaren prezioa aldatuko balitz, bermea 15 eguneko epean doituko da, aldaketaren erabakia enpresariari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita, aldaketaren ondorioz bermeak kontratuaren prezioarekin proportzioa gorde dezan. Doiketarik ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke. Ondorio horietarako ez dira prezio aldaketatzat joko kontratuaren prezioen berrikuspena onartzetik eratorritakoak.

**24. BALDINTZA. Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea.**

Behin betiko bermea itzultzea eta kitatzea 2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritako moduan egingo da, betiere, berme epea amaitu eta gero eta kontratuko betebeharrak egoki bete baldin badira.

**25. BALDINTZA. Esleipena.**

Kontratazio organoak eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleituko dio kontratua, 2017ko SPKLren 145. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2017ko SPKLren 158. artikuluaren arabera, behin betiko bermea eta eskatutako gainerako dokumentazioa aurkeztuta, eta derrigorrezkoa denean, kontuhartzailetzak gehienez ere 5 eguneko epean gastu konpromisoa fiskalizatuta, kontratua esleipendun bezala proposatutako lizitatzailearen alde esleituko da, eta behin esleituta, formalizatu egin beharko da.

Esleipena gehienez ere hiru hilabeteko epean egingo da proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Esleipen erabakia arrazoitua izan beharko da, lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epean kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Jakinarazpena bitarteko elektroniko bidez egingo da, 2017ko SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

Inolaz ere ezingo da irabazlerik gabe utzi lizitazio bat baldintza agiriko irizpideen arabera onargarria den eskaintzaren edo proposamenen bat dagoen bitartean.

**26. BALDINTZA. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.**

26.1.- Kontratua administrazio-agiri gisa formalizatu beharko da, eta zehaztasunez egokituko da lizitazioko baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak. Inolaz ere ezingo da esleipen baldintzak aldatzea dakartzaten baldintzarik sartu kontratua formalizatzen den dokumentuan.

26.2.- Formalizatutakoan burutzen da kontratua, eta inolaz ere ezingo da hasi kontratua egikaritzen aurrez formalizatu gabe.

26.3.- Kontratu honi kontratazio arloko errekurtso berezia jar dakiokeenez, ezingo da kontratua formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik 15 egun baliodun igaro arte.

Kontratazio organoak kontratua formalizatzeko eskatuko dio esleipendunari. Kontratua formalizatzeko epea ezingo da bost egun natural baino handiagoa izan errekerimendua jasotzen denetik kontatzen hasita, betiere, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro bada kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri gabe. Berdin jokatuko da errekurtsoa erabakitzeko organo eskudunak kontratuaren etetea jasotzen duenean.

26.4.- Esleipendunari egotzi dakizkion arrazoiengatik ez bada kontratua formalizatu adierazitako epe barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3a, BEZa gabe, eskatuko zaio zigor bezala, behin betiko bermetik, eratuta egongo balitz, kobratuko dena lehendabizi, eta kontratatzeko debekua ezartzearen kaltetan gabe, 2017ko SPKLren 71.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

26.5.- Kontratua ez formalizatzearen arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak eragindako kalte eta galerengatik ordainduko zaio kontratistari.

**26.6.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.**

## III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

### 27. BALDINTZA. Administrazioaren eskumenak.

Kontratazio organoak, 2017ko SPKLren 190. eta 191. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ondorengo eskumenak ditu:

a) Kontratua interpretatzea.

b) Kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak erabakitzea.

c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.

d) Kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta horren eraginak zehaztea.

### 28. BALDINTZA. Arriskua eta gorabeherak.

Kontratuaren arrisku eta gorabeheren erantzukizuna kontratistarena izango da, 2017ko SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2017ko SPKLren 239. artikuluan jasotako ezinbesteko kasuen kaltetan gabe.

### 29. BALDINTZA. Kontratuaren arduraduna.

2017ko SPKLren 62. artikuluaren arabera, kontratuaren arduraduna udaleko gizarte zerbitzuetako arloko teknikaria izango da.

Arduradunari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea eta kontratatutako zerbitzua zuzen egingo dela bermatzeko beharrezko erabakiak hartzea eta aginduak ematea, 2017ko SPKLren 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratuaren arduraduna da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

### 30. BALDINTZA. Egikaritze baldintzak eta betebeharrak.

#### 30.1.- Baldintza orokorrak.

**30.1.1.-** Kontratua baldintza agiri honetan ezarritako baldintzak, baldintza teknikoen agiria eta kontratuaren arduradunak kontratistari eman diezaizkiokeen aginduak zehaztasun osoz betez egikarituko da.

**30.1.2.-** Lizitaziora aurkezten diren enpresek beren borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio, esleipen eta egikaritze prozesuetatik eratorritako datu guztiei.

**30.1.3.-** Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, iragarkiak, eskritura publikoa eginez gero kontratua formalizatzearenak eta hornidura gai diren ondasunak egikaritu eta egoki entregatzeko beharrezko lizentzia eta baimenenak ere.

Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ere berak ordaindu beharko ditu: orokorrak, finantzarioak, asegurukoak, garraio eta bidaienak, materialak, instalazioak, bere kargurako langileen soldatak, egiaztatze eta entsegukoak, tasa eta zerga mota guztiak, BEZa, jarduera egiteagatik izan dezakeen zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua betetzerakoan sor daitekeen beste edozein.

Lizitatzaileek egindako eskaintzetan zein esleipen proposamenetan, eta eragin guztietarako, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten edozein motako zergak barne daudela ulertuko da.

**30.1.4.-** Kontratistak berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta administrazioari edo beste inori ondorioak eragin bazaizkio, orduan ere kontratistarena izango da erantzukizuna.

**30.1.5.-** Kontratista behartuta dago Udalari, hileko fakturarekin batera, modu sinesgarrian justifikatzera kontratu hau egikaritzera atxikitako langileen gizarte segurantzako kuoten ordainketak egunean dituela, horien TC1 eta TC2 agiriak aurkeztuta.

**30.1.6.-** Kontratista behartuta dago ere udal zerbitzu teknikoek kontratuaren helburuarekin lotuta eskatutako txosten, azterlan edo argazki erreportajeak aurkeztera.

**30.1.7.-** Kontratista behartuta dago zerbitzua ematera ingurumena eta lan osasuna hobeto errespetatzen dituzten metodo, praktika eta produktuekin eta baita hondakinak behar bezala kudeatzera ere.

**30.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak:**

Egikaritze baldintza bereziak dira ondoren zehazten direnak:

**30.2.1.- Lan, gizarte eta ingurumena babesteko baldintzak.**

1.- Kontratu honetan izaera sozialeko ondorengo arloei buruzko betebeharrak bete beharko dira: desgaitasunen bat duten pertsonen kuota, hizkuntza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ingurumena, lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean enplegua sustatzea eta gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen artean enplegua sustatzea, proposamenaren kalitate soziala, irizpide etikoak, enpleguaren kalitatea eta oinarrizko lan eskubideak; guztiak ere baldintza agirian zehaztutakoaren arabera.

2.- LANGILEEN SUBROGAZIOA. Lehengo esleipendunak zerbitzura atxikita zituen langileak subrogatu eta beretu beharko ditu enpresa kontratistak esleipen kontratua indarrean sartzen den lehen egunetik, lehengo esleipendunaren lan eta gizarte segurantzako eskubide eta betebehar guztietan. Horien barne dira pentsioen gaineko konpromisoak, horien araudi espezifikoan aurreikusita bezala; eta orokorrean, gizarte babes osagarri arloan lehengo esleipendunak hartuta zituen betebehar guztiak, zehazki, baldintza administratibo agiri honen IV. eranskinean jasotako langileen lan eta gizarte segurtasun eskubide eta betebehar guztiak, bertan adierazten diren antzinatasun eta kategoria guztiekin. Eta hori guztiori, lanaldiaren iraupena, kontratuaren izaera eta gizarte segurantza erregimena gorabehera, eta baita egungo egoera edozein izanda ere, subrogazioaren unean egungo enpresa esleipendunean aplikagarri den hitzarmen kolektiboa eta baldintza ekonomiko eta lan baldintza (amatasuna, aldi baterako ezintasuna, eszedentzia, oporrak eta abar) berak errespetatzeko beharrarekin. Eskoriatzako Udalak ez du inolako harreman juridikorik, lan arlokorik edo beste edozein motakorik izango enpresa esleipenduneko

langileekin, ez kontratuak indarrean dirauen bitartean ez behin kontratua amaitutakoan. Beraz, esleipendunaren kargura izango dira betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

3.- Kontratista behartuta dago lan arloko, gizarte-segurantza arloko, lan-segurtasun eta osasun arloko eta ingurumena babesteko, indarrean egon eta aplikagarri diren lege, arau eta hitzarmenak betetzera eta baita baldintza agiri honetan ezarritakoak ere.

4.- Enpresa kontratistak kontratua egikarituko duen plantillari aplikatuko dizkio bere enpresa jarduera zedarrituta dagoen sektoreko alor baxuenari dagokion sektoreko azken hitzarmen kolektiboak zehaztutako lan baldintzak, bertan xedatutakoa hobetzen duten eta indarrean dauden beste hitzarmen edo enpresa itun batzuen kaltetan gabe. Horretarako, Eskoriatzako udalerrirako Etxez Etxeko Laguntzako Hitzarmen Kolektiboaren indarraldiari buruzko informazioa ematen da. Hitzarmen hori langileen ordezkariek eta enpresa kontratistak sinatu zuten 2023ko irailaren 29an. Enpresa esleipendunak hitzarmen horretan jasotako baldintzak bete beharko ditu gutxienez (IX. ERANSKINA), eta hitzarmena kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaie 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

5.- Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa kontuan hartuta, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerragotu; nahiz eta aurrerago hitzarmen horren indarraldia amaitu daitekeen, lan hitzarmenen indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzartuta zeuden lan baldintzak hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– unera arte mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inolaz ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Enpresa kontratistak nahitaez eman beharko dio kontratazio organoari alderdi hori frogatzeko eskatutako edozein informazio edo dokumentazio.

6.- Esleipendunak kontratuaren helburua den jarduera egiten duten langileei ze hitzarmen kolektibo aplikagarri zaien adierazi beharko du. Horretarako, kontratua esleitu ondoren kontratu horretara atxikitako langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatuko zaion behar beste informazio ematera behartuta dago.

7.- Enpresa esleipendunaren arabera kontratuaren xedea den jarduera egiten duen langileei aplikagarria zaien hitzarmen kolektiboaren inguruko informazioa jasoko da esleipen erabakian, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

8.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa aldez aurretik jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari, baldin eta esleipenaren unean aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie. Komunikazio horretan negoziazioari buruzko justifikazio dokumentazioa agertu beharko da, bai eta lan baldintza berrien edukia eta aldaketa horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

9.- Azpikontrataziorik egiten bada, baldintza honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak

egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

**30.2.2.- Hizkuntz betebeharrak.**

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta hori garatzen duten arauak, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Eskoriatzako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, 2018ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartua.

2/2016 Legeak, bere 7.8 artikuluan, eskumena aitortzen die udalei zehar-kudeaketa moduan ematen diren zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulak sartzeko helburu honekin: udalari exijitu ahal zaizkion hizkuntza baldintza beretan ematea zerbitzua.

Lege horrek ezarritakoarekin bat etorriz, 179/2019 Dekretuak, bere 36.3 artikuluan, xedatzen du Euskadiko toki-entitateek hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko dutela kontratu publikoetan, eta, kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko dituztela administrazio-baldintza partikularren agirietan.

36.8 atalean, gainera, herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatu beharko dela zehazten du:

a) Enpresa esleipendunak hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan egongo da jasota.
b) Zerbitzua ematen duenean, esleipenduna saiatuko da herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa esleipenduneko langileak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Zerbitzuaren erabiltzaileak zer hizkuntza aukeratu duen, hizkuntza horretan idatziko ditu enpresa esleipendunak zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta beste idazki batzuk.

2.- Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira. Edonola ere:

a) Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.
b) Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez (zehaztasunak, baldintza teknikoetan).
c) Zerbitzua ematean, esleipendunak errespetatu egin beharko du onuradunak egindako hizkuntza aukera, eta zerbitzua euskaraz izatea eskatzen duten erabiltzaileei hala eman beharko zaie ahal den guztietan. Halaber, euskaraz edo ele bietan egingo ditu zerbitzua emateko sortzen diren idatziak (zerbitzuari buruzko informazioa, araudia, erabiltzaileen eskubideak, inprimakiak, oharrak, jakinarazpenak...). Ele bietan egiten dituenean, euskarazkoari emango dio lehentasuna.

3.- Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz/ edo, onartzen den kasuetan, ele bietan.

4.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen udal arloak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

5.- Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

**30.2.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasun arloko baldintzak.**

1.- Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, neurriak ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko enplegua lortzean, sailkapen pertsonalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, bai eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen dutenak ere, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, ezarritakoaren arabera.

2.- Enpresa esleipendunak hizkera ez sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzerakoan sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

**30.2.4.- Azpikontratazio kasuetako baldintzak.**

1.- Azpikontratazioak ondorengo baldintzak betetzearen menpe egongo dira:

- Enpresa esleipendunak kontratazio organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu eta gero, eta beranduenez egikaritzen hastean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta adierazi beharko du prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen, eta azpikontratisten harremanetarako datuak eta haien legezko ordezkariak zeintzuk diren. Horrez gain, aurkeztu beharko dio azpikontratistek azpikontratatu beharreko zatiak egikaritzeko duten gaitasuna, eta frogatu beharko du ez daudela administrazioarekin kontratatzeko inongo debekuren mendean.

  Azpikontratistak SPKLren 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

  Azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan zehaztutakoarekin, bai eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako, bai eskaintzan adierazitako profil profesionalaren araberakoak ez direlako, ezin izango dira egin, jakinarazpena bidali eta gaitasunari nahiz kaudimenari buruzko egiaztagiriak aurkezten

direnetik 20 egun igaro arte, non eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta administrazioak ez badu, epe horren barruan, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, eskaintzan azpikontratistak identifikatu badira lanbide profila deskribatuz.

- 20 eguneko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere enpresa kontratistaren erantzukizun pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.
- 20 eguneko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere enpresa kontratistaren erantzukizun pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.
- Isilpeko kontratuetan edo izaera erreserbatukoetan, edo segurtasun neurri bereziez babestuta gauzatu beharrekoetan, lege nahiz araudien arabera, edo estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatzen duenean, kontratazio organoaren berariazko baimena beharko da beti azpikontratazioa egiteko.

2.- Azpikontratistak soilik enpresa kontratista nagusiaren aurrean egongo dira derrigortuta. Ondorioz, azken horrek hartuko du bere gain kontratua egikaritzeko erantzukizuna administrazioaren aurrean, baldintza berezien agiri honetan xedatutakoari eta kontratuaren baldintzei zorrotz jarraikiz; ingurumen arloko, gizarte arloko eta lan arloko obligazioak betetzea barne.

Enpresa kontratista nagusiak erantzukizun esklusiboa izaten jarraituko du egindako azpikontratuak administrazioak ezagutu arren aurreko 1 idatz-zatiko a) eta b) letrek aipatutako komunikazioei esker, edo administrazioak baimena eman arren apartatu horretako c) letran aurreikusitako kasuan.

3.- Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo SPKLren 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin.

4.- Enpresa kontratistak informazioa eman beharko die azpikontratazioko langileen ordezkariei, laneko legerian xedatutakoaren arabera.

5.- Enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratua islatuko den dokumentua aurkeztu beharko dio kontratazio organoari. Bertan, enpresa edo entitate azpikontratistaren betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako baldintzen ingurukoak, eta horiek ez betetzeak sortzen dituen ondorioak ere zehaztu beharko dira.

6.- Azpikontratistei egindako ordainketek jarraitu beharko diote SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 legea aldarazten duen merkataritzako eragiketen berankortasunaren

aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoari.

7.- Administrazioak egiaztatu ahal izango du kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratzaileei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak zorrotz betetzen direla.

Horretarako, kontratistak Administrazioari bidaliko dio, hark hala eskatzen badu, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda xehatu bat, parte hartzea zehaztu denean, ordainketa epearekin lotura zuzena duten horietako bakoitzaren azpikontratazio edo hornitze baldintzekin batera.

Horrez gain, Administrazioari aurkeztuko dio, hark hala eskatzen badu, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean zehaztutako ordainketa epeak bete direla frogatzeko egiaztagiri bat, behin prestazioa amaitutakoan.

**30.2.5.- Laneko segurtasun eta osasun arloko baldintzak.**

1.- Enpresa kontratatzaileak bete beharko ditu laneko segurtasun eta laneko arriskuak gutxitzeko alorrean indarrean dauden xedapenak, baita aplikatu beharreko hitzarmenetik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa kontratatzaileak kontratuaren xedeari atxikitako langileen osotasunari eta osasunari eragin diezaizkieketen arriskuak zorrozki saihesteko nahitaezko edo beharrezko diren laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu.

3.- Kontratuaren xedearen nolakotasunak eskatzen duenean kontratistaren langileek (edo, hala badagokio, azpikontratistarenak) Administrazio kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar izatea, non administrazioaren beraren langileek zerbitzuak ematen dituzten, enpresa eta langile autonomo guztiek beren artean elkarlanean aritu beharko dute eta informazioa partekatu beharko dute egin beharreko jardueren arrisku espezifikoen inguruan, langileei eragin diezaizkietenen inguruan, betiere jarduera hasi aurretik. Enpresek beren langileei informazioa emango diete jarduerak egitetik eratorritako arriskuen inguruan, eta beharrezko koordinaziorako bitarteko egokiak ezarriko dituzte. Enpresek beren langileei informazioa emango diete jarduerak aldi berean egitetik eratorritako arriskuen inguruan, eta koordinaziorako beharrezko bitarteko egokiak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan izango da laneko arriskuak ebaluatzean eta dagozkion prebentziozko jarduerak planifikatzean.

Kasu horietan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da jarduera hasi aurretik, enpresa jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuari jarraiki:

a) Kudeaketa prebentiboko dokumentua eta hartu beharreko prebentzio neurriak.
b) Egin beharreko lanen prebentzio jardueren plangintza.
c) Jaso izanaren agiria, kontratistak sinatuta, baita azpikontratistak sinatuta ere halakorik badago, egiaztatzeko Administrazioaren eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuei buruzko dokumentazioa jaso dela, eta baita arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriei eta jarraibideei buruzkoa eta larrialdi egoeretan aplikatu beharreko neurriei buruzkoa ere.

d) Prebentzioaren antolaketa-mota. Enpresaren kanpoko prebentzio zerbitzu bat aplikatzen bada, Prebentzio Zerbitzuarekin egindako kontratuaren kopia bat aurkeztu beharko da, hiru espezialitate hauekin: Segurtasuna eta Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatua, eta, gainera, Osasunaren Zaintza. Prebentzio zerbitzu hori indarrean dagoela egiaztatzen duen ordainagiri edo ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

e) Kontratua egikaritzeko duten langileen eta kontratuaren helburura bideratutako makineriaren zerrenda.

f) Kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileek kontratuko lanak egiteko egokitasunari buruzko mediku egiaztagiriak.

g) Kontratua egikarituko duten langileek prebentzio esparruan jaso duten prestakuntzaren eta informazioaren frogagiria; horren barruan egon beharko dira lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuen inguruan jasotako informazioa, arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriak eta jarraibideak eta larrialdi kasuetan aplikatu beharreko neurriak.

h) Norbera babesteko beharrezko ekipamenduak eman izanaren frogagiria.

i) Enpresak bere makineria edo lanerako ekipamenduak erabiltzen baditu, adostasun deklarazioa, CE markak edo 1997ko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura -langileek lan tresneria erabiltzerakoan segurtasun eta osasun arloetan errespetatu beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenera- egokitzeko dokumentazioa eta horiek erabiltzeko eskuliburua. Halaber, tresna horiek erabili behar dituzten langileek horretarako berariazko prestakuntza jaso dutela eta horiek erabiltzeko baimenduta daudela adierazten duen ziurtagiria.

j) Produktu kimikoen segurtasun fitxak, enpresa kontratistak edo azpikontratistak produktu kimikorik erabili behar badu.

k) Segurtasun eta osasun arauak betetzen direla bermatuko duen pertsonaren izena; baita administrazio kontratatzailearen langileak koordinatzeko bitartekoak ere. Horrez gain, dagozkion prebentzio baliabideak eskuragarri jartzea, baldin eta horrelakorik beharrezkorik bada

Enpresa kontratistak kontratuaren helburua egiteko lanak beste enpresa batekin azpikontratatu dituenean, atal horretan aurreikusitako frogagiriak eskatu beharko dizkie enpresa kontratistak enpresa azpikontratistei (autonomoei), horiek administrazio kontratatzaileari aurkezteko.

Bereziki bermatu beharko da enpresa azpikontratistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebehar guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz araudiak xedatutakoa betetzen dela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean egiteko azpiegitura eta baliabide nahikoa dituela enpresa azpikontratatuak.

Erakunde kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpikontratistek betetzen dutela laneko arriskuak prebenitzeko araudia. Horretarako, helburu horrekin bat datorren edozein neurri hartu ahal izango du.

4. Kontratuaren helburuaren izaerak eskatzen duenean kontratistaren langileek (edo, hala badagokio, azpikontratistaren langileek) prestazioren bat egin behar izatea erakunde kontratatzailearen zentroetan, azken horren langileek bertan zerbitzurik eman gabe, ezingo da kontratuaren xede den jarduerarekin hasi administrazio kontratatzaileak ez baditu egin honako jarduketa hauek aldez aurretik:

- Jardueran parte hartzen duten enpresei lantokiko arriskuen berri ematea, hain zuzen ere, bertan garatu beharreko jardueretan eragina izan dezaketenen berri, baita arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien berri ematea ere.
- Enpresa kontratistari larrialdietarako neurrien berri ematea.

Lan gune horretan enpresa bateko baino gehiagoko langileek batera egin behar badute lan, jarduerarekin hasi aurretik, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege dekretua betez, enpresa eta langile autonomo guztiek beren artean elkarlanean aritu beharko dute eta informazioa partekatu beharko dute egin beharreko jardueren arrisku espezifikoen inguruan, gainerako enpresetako langileei eragin diezaieketenen inguruan. Enpresek beren langileei informazioa emango diete jarduerak aldi berean egitetik eratorritako arriskuen inguruan, eta koordinaziorako beharrezko bitarteko egokiak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan izango da laneko arriskuak ebaluatzean eta dagozkion prebentziozko jarduerak planifikatzean.

Jarduera hasi aurretik, kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak, jaso izanaren agiria aurkeztu beharko du berak sinatuta, frogatzeko administrazio kontratatzailetik jaso duela lan guneari eta bertako instalazioei dagozkien arriskuen, bertan garatutako jarduerei eragin diezaizkieketen lan guneko arriskuen eta arrisku horiek prebenitzeko eta larrialdietako neurrien inguruko dokumentazioa.

5. Baldin eta, enpresa kontratistak baldintza honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**30.2.6.- Datuen babesaren arloko baldintzak.**

Kontratatutako zerbitzuei buruz enpresa esleipendunak jakin ditzakeen datu guztiak dira konfidentzialak, eta horien izenak eta sekretua gorde beharko da. Isiltasun profesionala izateko betebeharra ez betetzeagatik sortutako kalte eta galerak direla-eta kalte-ordaina emango die esleipendunak Udalari eta horiek jasan dituzten pertsonei.

Kontratua betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen datu pertsonalak erabili behar dituenean enpresa esleipendunak, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta hori garatzen duen araudian xedatutakoak bete beharko ditu.

Enpresa esleipendunak ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratua dela-eta lortutako datu pertsonalak kontratuan agertzen den helburua ez den beste helburu baterako, eta ezingo dizkie datu horiek laga beste pertsona batzuei, ezta zaintzeko ere.

Administrazio digitalaren, sektore publikoaren kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan segurtasun publikoagatik premiazko neurriak hartzen dituen urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege Dekretuaren bidez sartutako erreformekin bat etorriz, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116.1 artikuluaren arabera, kontratazio-espedientean zehaztu beharko da zein izango den lagako diren datuen tratamenduaren helburua.

Baldintza-agiri honek arautzen duen kontratuaren xedea betetzeko, Eskoriatzako Udalak honako datu pertsonal hauek lagako dizkio prozedura ireki honetan kontratatzen den enpresari: *Etxez etxeko laguntza-zerbitzuan artatuko diren pertsonen eta haien familien identifikazio-datuak, mendetasun-maila barne.*

Aipatutako datuak kontratatutako enpresari lagatzearen helburua da oinarrizko gizarte-zerbitzuek proposatutako zerbitzua profesional-taldeak garatu ahal izateko ezinbesteko diren erabiltzaileen identitatea eta, hala badagokio, mendekotasun-egoera jakinaraztea enpresari.

Kontratu prestazioa bete eta gero, tratatutako datu pertsonalak Udalari eman beharko zaizkio.

Esleipendunak, kontratuaren prestazioa amaitutakoan, datu pertsonalak suntsitu beharko ditu, erakunde kontratatzaileari itzuli beharko dizkio edo tratamenduaz arduratzeko administrazioak izendatutako beste pertsona bati itzuli beharko dizkio.

Baldin eta, enpresa kontratistak baldintza honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

**30.3.- Baimenen eta lizentzien kudeaketari buruzko betebeharrak.**

1.- Kontratistaren ardurapekoa izango da eta bere kontura joango da, kontratazio organoak berak kudeatzea erabakitzen ez badu, lanak egoki egiteko beharrezko baimenak eta lizentziak lortzea, eta baita eskumena duten erakundeek ezarritako baldintzak eta aginduak betetzea ere.

2.- Baimen edo lizentzia horiek lortzeak tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk sortuko balitu, horiek ere kontratistak ordaindu beharko ditu.

**30.4.- Zerga arloko betebeharrak: zerga gardentasuna-irizpide etikoak.**

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua ekitate eta zerga gardentasun irizpideekin betetzeko, eta beraz, kontratu publiko honetatik lortutako diru sarrerak edo irabaziak osorik aitortuko eta ordainduko dira indarrean dagoen zerga legediaren arabera, berariaz debekatuta egonik ELGEk ezarritako zerga-paradisu zerrendako herrialderen bateko helbideak erabiltzea eta, ondorioz, bertan ordaintzea zergak bai zuzenean bai eskumendeko enpresen bitartez. Baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoia izan daiteke.

**30.5.- Hirugarrenei eragindako kalteengatiko erantzukizuna.**

Kontratatutako enpresak izango du kontratua betetzean burutzen diren ekintzen ondorioz eragiten diren kalte galeren gaineko erantzukizuna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, kontratua esleitu baino lehen aseguru polizaren kopia eta hori ordaindu dela egiaztatzeko agiriren bat aurkeztu beharko du. Aseguruaren gutxieneko berme muga 600.000 eurokoa izango da eta kontratuari atxikitako arriskuak estaliko ditu, bereziki, erantzukizun zibila hirugarren pertsonei kalterik eragiten badiete langileek, enplegatuek eta mendekoek, hala iraunkorrek nola lantzean behingoek, eta horien makineriak eta ekipoek; eta baita esleipenaren gaia diren zerbitzuak egikaritzerakoan lanek sortutako kalteak ere.

Edozein kasutan ere, frankiziari dagokion zenbatekoaren kalte-galerak esleipendunak berak jasango ditu kalte-galerok aseguru-poliza guztietan ezar daitezkeen mugak gainditzen dituzten guztietan zein aseguru-poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasunetan eta arriskuetan.

**31. BALDINTZA. Kontratistari ordaintzea.**

Hitzartutako prezioen eta benetan egindako lanen arabera kobratzeko eskubidea du kontratistak, betiere, lan horiek egindako kontratuaren, horri egindako eta onartutako aldaketen eta Udalak emandako aginduen arabera egin baldin badira.

Zerbitzua hilero ordainduko da, dagozkion fakturak aurkeztu eta zuzen daudela ikusi ondoren, eta betiere, dagokion teknikariak lanak zuzen egin direla onetsi ondoren.

Ordainketa 2017ko SPKLren 198. artikuluan ezarritako epeen barruan egingo da.

Ordainketa egiterakoan lau hilabete baino gehiagoko berandutzea egongo balitz, kontratistak, hala nahi izanez gero, kontratua bete gabe utz dezake. Horrela eginez gero, horren berri eman beharko dio Administrazioari hilabete aurretik, bete gabe uzte horretatik sor daitezkeen eskubideak aitortzeko 2017ko SPKLren ezarrita bezala.

Administrazioa sei hilabete baino gehiago berandutuko balitz ordainketan, kontratistak eskubidea izango du kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz izan ditzakeen kalteen ordaina jasotzeko.

Kontratista abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduko (2014/12/09ko 234. GAO) 2. artikuluan aurreikusitako pertsona juridikoren bat baldin bada, dagokion faktura modu elektronikoan aurkeztu beharko du. Faktura elektronikoa erabiltzera derrigortuta ez dagoenak ere erabili ahal izango du borondatez.

**Faktura elektronikoa:** Fakturak formatu elektronikoan bidali beharko dira Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorraren (FSPOe) bidez https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua

**Unitate organikoen DIR3 kodigoak:**

Eskoriatzako Udala

Organo kudeatzailea: L01200343

Unitate izapidegilea: L01200343

Kontabilitate bulegoa: L01200343

**32. BALDINTZA. Kontratuaren aldaketak.**

Kontratua bakarrik interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da 2017ko SPKLren bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. ataleko 4. azpiatalean jasotako kasuetan eta moduan, eta 2017ko SPKLren 191. artikuluak araututako prozeduraren arabera, 2017ko SPKLren 207. artikuluan jasotako berezitasunekin.

SPKLren 204. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu honetan aurreikusitako aldaketa kasuak honako hauek izango dira:

- Beharrezko zerbitzu orduak gehitzea edo gutxitzea, benetako eskariaren arabera.
- Aldaketek, bakarka edo pilatuta, ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 20a goraka zein beheraka.
- Aldaketak tramitatzeko, kontratistak zerbitzuengatik bere eskaintzan sartutako prezio, denbora eta maiztasunak hartuko dira erreferentzia bezala.

Ez dira kontratuaren aldaketatzat joko giza baliabideak eta baliabide materialak hobetzeko, optimizatzeko edo aurrezteko Udalak adierazitako aldaketak, betiere, ekonomikoki aldaketa esanguratsurik eragiten ez badituzte.

Aldaketak ezingo du ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berriak ezartzea.

**33. BALDINTZA. Kontratua etetea.**

Udalak, interes publikoko arrazoiengatik, kontratuaren egikaritzea etetea erabaki dezake. Era berean, bidezkoa izango da kontratua etetea 2017ko SPKLren 208. artikuluan aipatutako egoera gertatuko balitz.

Kontratua etetearen eraginak 2017ko SPKLren 208. artikuluak eta horrekin bat datozen Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko arauetan xedatutakoek arautuko dituzte.

**34. BALDINTZA. Lanak onartzea eta berme epea.**

Kontratuaren helburu den zerbitzuaren prestazioa amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, egindako zerbitzua hartzeko egintza formal eta positiboa egingo da eta egintza horren akta jaso. Era berean, BI HILABETEKO epea ezartzen da, emandako zerbitzuekiko adostasun akta egindako egunetik kontatzen hasita, berme bezala Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta erregelamenduzko arauetan aurreikusitako eraginetarako. Berme epe horretan kontratista izango da lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta gabezia guztien erantzulea. Epe hori igarota Administrazioak inolako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe aurreko paragrafoetan esandakoari buruz, kontratista erantzukizunetatik salbuetsita geldituko da.

**35. BALDINTZA. Zigor erregimena (2017ko SPKLren 192. artikulutik 194. artikulura)**

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK

Kontratatutako enpresak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko hurrengo baldintzan ezarritako diru-zigorra ezartzea.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio organoak aukera izango du kontratua suntsitzeko edo zigor gehiago ezarri eta kontratua egikaritzen jarraitzeko.

B) EGIKARITZE PARTZIALA EDO PRESTAZIOA AKATSEKIN BETETZEA.

Kontratatutako enpresak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen egikaritze partziala epean bukatzen ez badu edo kontratuan zehaztutako prestazioak akatsekin bete, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea, bermea galduta, edo hurrengo baldintzan jasotako zigorrak ezartzea.

C) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA.

Kontratatutako enpresak, bere erruagatik, kontratuaren baldintza bereziak beteko ez balitu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo zehapenak jarri, 1 eurokoa kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko proportzioan, sortutako kalte eta galeren kalte-ordainarekin batera.

**36. BALDINTZA. Arau-hausteak eta zigorrak.**

Kontratistak egindako hutsegiteak honela zigortuko dira: -

- Hutsegite arinak 60tik 150 euro arteko isunaz zigortuko dira. Kontratua suntsituko da kontratuaren urte batean 15 hutsegite eginez gero.

- Hutsegite larriak 150etik 300 euro arteko isunaz zigortuko dira. Kontratua suntsituko da kontratuaren urte batean 10 hutsegite eginez gero.

- Hutsegite oso larriak 301etik 450 euro arteko isunaz zigortuko dira eta behin betiko bermea galtzea ekarriko du. Gainera, hutsegite oso larritzat kalifikatutako 2) eta 3) hutsegiteak izanez gero, kontratistak zenbateko bereko beste berme bat jarri beharko du edo kontratua hautsiko da.

Zigorrez gain, kontratistak kalte-ordain bat ordaindu beharko dio Udalari. Kalte-ordain horren zenbatekoa egin ez den zerbitzuari buruz, aplikatu ez diren bitartekoei buruz eta abarrei buruz egindako balorazioarena izango da.

Ezarritako isunen zenbatekoa hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik edo jarritako bermetik.

**a) HUTSEGITE ARINAK.**

Hutsegite arinak hauek izango dira:

1- Zerbitzuak ematean akatsak izatea, baina, ez behin eta berriro (lanen kalitateari, baliabide nahiko ez izateari, materialaren egoerari eta mantentzeari, lanen exekuzio erritmoari, Udalbatzaren edo Udaleko Zerbitzu Teknikoen aginduak ez betetzeari buruz, zuzendaritza, ikuskapen eta kontrol eskumenak erabiltzean, lan programan aldaketak izatea eta abar), urte natural bakoitzean 4 bider baino gehiagotan zigortua izan ez bada.

2.- Adierazitako orduetan zerbitzuak ematen hastean atzeratzea, baina ordubetetik gora ez, hilabete batean birritan edo urte bakoitzean hamar bider baino gehiagotan.

3.- Edozein zerbitzu eten duela ez adieraztea Udalari, edozein izanik haren kausa eta, betiere, urte natural bakoitzean 4 bider baino gehiagotan gertatzen ez bada.

4.- Uniformetasun falta edo urritasuna zerbitzuak ematen dituzten langileen artean, uniformeak egiteko erabilitako materiala dela-eta horiek itxura eta egoera txarrean egoteagatik, betiere, uniformetasun falta edo urritasunak 48 orduko epean zuzentzen baditu kontratistak, ikusitako gabezia edo akatsaren berri ematen diotenetik.

5.- Deskortesia zerbitzuaren erabiltzaileekin.

6- Arduraduna ez egotea aurkitzeko moduan edo zerbitzu orduetatik kanpo agindu beharreko lanei kasurik ez egitea, betiere, urte natural bakoitzean 4 bider baino gehiagotan gertatzen ez badira.

7.- Informaziorik ez bidaltzea edo lan-orriak atzerapenez bidaltzea, kontratistak nahitaez egin eta bakoitzarentzat ezarritako maiztasunez aurkeztu beharreko txostenak izanik horiek; betiere, urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiagotan gertatzen ez badira.

**b) HUTSEGITE LARRIAK.**

Hutsegite larriak hauek izango dira:

1.- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea.

2.- Kontratistak bete ez izana legezko edo arauzko xedapenek ezarritako baldintzak, indarrean dagoen hitzarmena, eskatutako aseguruak, ingurumen legeak, segurtasun elementuak eta neurriak, laneko betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta segurtasun eta higienekoak, zerbitzuari atxikitako langileekiko eta makineriarekikoak eta abar.

3.- Baldintza agirietan edo bere eskaintzan adierazitako gainerako baldintzetako edozein ez betetzea kontratistak.

4.- Zerbitzuak ematean akatsak egitea behin eta berriro.

5.- Kontratistari formalki ohartarazi eta gero, osasun preskripzioa gorde ez izana edo osasungaitz, arriskugarritasun edo erosotasun egoerarik ez izateari buruzko aginduak bete ez izana.

6.- Kontratistari emandako aginduak behin eta berriro desobeditzea zerbitzugintzaren antolamenduari, erari eta erregimenari dagokienez, edo egoera txarrean dagoen oinarrizko materiala berriro ez jartzea edo konpontzea.

7.- Langileen aldi baterako ezintasunen berri ez ematea 15 orduko epean edota aldi baterako ezintasuna duten langileak ez ordezkatzea baja gertatzen denetik 15 orduko epea igarota, horretarako udal baimena dagoen kasuetan izan ezik.

8.- Aldizkako lan parteak edo txostenak faltsutzea.

9.- Plantilla aldatzea aldez aurretik Udalari adierazi barik.

10.- Kontzesioaren helburu diren zerbitzuak Udalak fiskalizatu eta kontrolatzeari ukatzea edo zeregin horietarako trabak jartzea.

**c) HUTSEGITE OSO LARRIAK.**

Hutsegite oso larriak honako hauek izango dira:

1.- Kontratatutako zerbitzuak ematen ez hastea baldintza agiri honetan ezarritako epe barruan, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

2.- Kontratatutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

3.- Zerbitzuak emateko eran iruzurra egitea, baliabide egokiak edo eskatutako oinarrizko elementuak erabili ez direlako, edo zerbitzuari atxikitako materialen bat desagertu delako.

4.- Kontratistak edo haren enplegatuek edozein ordain edo mesede jaso izana partikularrengandik edo zerbitzuaren erabiltzaileengandik.

5.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari atxikitako materialak, edozein modalitate edo titulu pean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.

6.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

**Zigorrak ezartzea:**

Kontratua ez betetzeagatik zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko kontraesaneko espediente laburra egingo da, eta bertan, salaketa egin ondoren 5 egun naturaleko epea emango zaio kontratistari alegazioak jartzeko. Alegazio horiek eta zigor espedientea Alkate jaunak erabakiko ditu udal zerbitzuaren arduradunak txostena egin ondoren. Erabaki horrek administrazio bidea amaituko du.

Zigor horiek jartzeko espedientea gertaeren berri idatziz jakindakoan hasiko du Udalak. Hala ere, uste bada kontratua ez betetzeak ez duela eragin larririk izango lanen egikaritze materialean edo

zigor espedientea hasteak onura baino kalte handiagoa egingo diola lanak egikaritzeari, espedientea edozein momentuan hasi ahal izango da kontratuaren berme epea amaitu baino lehen.

Ezarritako zigor eta kalte-ordainak berehala betearaztekoak izango dira, eta Udalak kontratistari ordaintzeko dituen ordainketetatik kenduta kobratuko dira. Ordaintzeko ezer egongo ez balitz, behin betiko bermetik kendu ahal izango da, eta hori nahikoa ez balitz zigor osoa ordaintzeko, premiamendu administratiboaren bidetik eskatu ahal izango da, zuzenbide publikoko diru sarreratzat jotzen baita.

**37. BALDINTZA. Kontratuaren suntsipena.**

37.1.- Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratuaren suntsipena HAKLAOaren 109. artikuluan zehaztutako prozeduraren arabera egingo da, sei hilabeteko epean erabaki prozedura hasten denetik kontatzen hasita, eta SPKLren 213. eta 307. artikuluetan aipatutako eraginak izango ditu.

37.2.- Kontratua ondorengo arrazoiengatik ere suntsitu ahal izango da:

a) Kontratua gauzatu bitartean kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzeagatik, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

   Arrazoi horrengatiko suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskatuta erabakiko da; soldatak ordaintzen ez dizkieten langileei, SPKLren 130. artikuluaren arabera, subrogazioa egitea bidezkoa izan eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren esleipen prezioaren ehuneko 5etik gorakoak direnean izan ezik. Kasu horretan kontratazio organoak ofizioz erabaki ahal izango baitu, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.

b) Baldintza agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko ez betetze oso larria gertatzeagatik.

c) SPKLren 211. artikuluari jarraiki, agiri honen 30. baldintzan adierazitako betebeharrak ez betetzeagatik.

d) Baldintza teknikoen orrian ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

e) Esleipendunaren ezintasun teknikoa kontratuaren helburu den prestazioa betetzeko.

37.3.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, hartako kideetako bat SPKLren 211.1 a) eta b) artikuluko kasuan aurkitzen denean, administrazioak eskumena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratuzko betebeharrak betearazteko edo kontratua suntsitzea erabakitzeko.

37.4.- Hala ere, atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta egikaritzearekin aurrera egitea erabakitzeko.

**38. BALDINTZA. Errekurtsoak.**

1.- Baldintza agiri honi eta baldintza teknikoen agiriari, hala nahi izanez gero, SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso berezia jarri ahal izango zaie 100.000 eurotik (BEZa gabe) gorako balioa kalkulatzen zaion kontratua denez.

2.- Era berean, ondorengo jarduerak ere errekurritu ahal izango dira:

a) Lizitazioko iragarkiak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratuko gainerako dokumentuak.

b) Esleipen prozeduran egindako tramite egintzak, baldin eta esleipenean zuzeneko zein zeharkako eragina badute, prozedurak aurrera jarraitu ezina badakarte edo eskubide edo interes legitimoentzako defentsa gabezia edo kalte konponezinen bat ekartzen badute. Edozein kasutan, aurreko inguruabarrak gertatu direla ulertuko da hautagai edo lizitatzaileak onartzeko ala baztertzeko, edo eskaintzak onartzeko edo baztertzeko, erabakitzeko mahaiaren edo kontratazio organoaren egintzetan; SPKLren 149. artikulua aplikatuz ohikoa baino baxuagoak izateagatik baztertzen diren eskaintzak barne.

c) Esleipen erabakiak.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritako ez betetzeetan oinarritutako aldaketak, aldaketak esleipen berri bat ekarri behar zuela ulertu bada.

SPKLren 51. artikuluak xedatutakoaren arabera, errekurtsoa kontratazio organoari jarri behar zaio, Kontratuen inguruko Errekurtsuen Administrazio Organoan (Donostia-San Sebastian kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan, 15 egun balioduneko epean, SPKrLen 50.1 artikuluan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, errekurtsoa SPKLren 39. artikuluko 2. idatz-zatiko c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako deuseztasun kausaren batean oinarritzen baldin bada, SPKLren 50.2 artikuluan errekurtsoak jartzeko aurreikusitako epeak hartuko dira kontuan.

Aukeran, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

## IV.- IZAERA, ERREJIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA.

**39. BALDINTZA. Kontratuaren izaera, erregimen juridikoa eta kontratu izaera duten dokumentuak.**

Baldintza agiri hauen arabera egingo den kontratuak administrazio izaera izango du. Egin beharreko kontratua zerbitzu kontratu bezala kalifikatzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Baldintza administratibo partikularren agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta horien eranskinek arautuko dute kontratazioa, eta kontratuko dokumentu izaera izango dute, eta hori horrela izanik, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte eta, ados dagoela adierazteko, enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekintzan.

Baldintza agirietan aurreikusi gabekoetarako, ondorengo arauek arautuko dute kontratua:

- Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EE Zuzentaraua, 2004/18/EEa indargabetzen duena.

- Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (UE) 2016/7 betearazpen erregelamendua, kontrataziorako agiri europar bakarraren formulario normalizatua ezartzen duena.

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea -2017 SPKL-.

- Herri Administrazioetako Kontratazio Erregelamendua onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretua.

Osagarri moduan, zuzenbide administratiboko gainerako arauek aginduko dute, eta horrelakorik ez bada, zuzenbide pribatukoek.

**40. BALDINTZA. Jurisdikzio eskuduna.**

Kontratu honetatik sortutako auziak, administrazioarekiko auzien jurisdikziopean geratuko dira; hala ere, eta indarrean dagoen legeriaren arabera, aldeek akordio bat egin dezakete bitartekaritza onartzeko.

Kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarri daiteke Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44.2 artikuluan aipatzen diren erabakien aurka, aipatutako 9/2017 Legeko 50. artikuluan adierazitako hitzetan, baldintzetan eta epeetan.

Errekurtsoaren erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

# I. ERANSKINA

## ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

| | |
|---|---|
| | **Bere izenean** |
| | **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean** |
| | **Ordezkatutako enpresaren sozietate-izena:** |
| | **Ordezkatutako enpresaren IFK:** |

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

| | |
|---|---|
| | **Bere izenean** |
| | **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean** |
| | **Ordezkatutako enpresaren sozietate-izena:** |
| | **Ordezkatutako enpresaren IFK:** |

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

| | |
|---|---|
| | **Bere izenean** |
| | **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean** |
| | **Ordezkatutako enpresaren sozietate-izena:** |
| | **Ordezkatutako enpresaren IFK:** |

***** *Egokitu eredua esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa elkartea osatuko duten enpresa bakoitza ordezkatuko duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

**ORDEZKARI GUZTIEK AITORTZEN DUTE**

- Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela erreferentziako kontratuaren esleipendun izanez gero, honako parte hartze portzentajearekin:

| Enpresaren izena | % |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

- Aldi baterako enpresaren elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzen dutela ……. jauna/andrea; behar besteko ahalordearekin kontratutik sortzen diren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua iraungi arte.

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |

**Lekua eta eguna:**

| | |
|---|---|
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |

# II. ERANSKINA

## ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO DIREN ESKAINTZAREN BESTE ELEMENTUEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN-IFZ**

| | |
|---|---|
| | **Bere izenean** |
| | **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean** |
| **Ordezkatutako enpresaren sozietate-izena:** | |
| **Ordezkatutako enpresaren IFK:** | |

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

| | |
|---|---|
| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |

Aipatutako kontratazio espedienteari buruz eskatzen diren baldintzez jakitun, ondorengo prezioa(k) proposatzen ditut, eta hala badagokio, formula bidez ebaluatzeko diren beste elementuen eskaintzak.

**1.- OFERTA ECONÓMICA:**

· **Prezioa orduko lanegunetan: ……. €, gehi..... €, BEZaren % …….ri dagozkionak.**

· **Prezioa orduko jaiegunetan: ……. €, gehi..... €, BEZaren % …….ri dagozkionak.**

**Lekua eta eguna:**

| | |
|---|---|
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |

## III. ERANSKINA

## AURKEZTUTAKO ETA KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATUEN ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN-IFZ** |
|---|---|

| | |
|---|---|
| | **Bere izenean** |
| | **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean** |
| | **Ordezkatutako enpresaren sozietate-izena:** |
| | **Ordezkatutako enpresaren IFK:** |

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

**ADIERATEN DUT**

Konfidentzialtzat dituela aurkeztutako eskaintzaren honako **dokumentu, informazio eta alderdi** hauek, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta daudelako: [1]

- 
- 
- 

……..…

Datu horiek konfidentzialak direla arrazoi hauengatik:

–
–

[1] Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzialtzat. Enpresak ez badu berariaz konfidentzialtzat jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzialtzat jo ez den daturik konfidentzialtzat jotzea.

# IV. ERANSKINA

## SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA

**SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA**

| | KODIGOA | KONTRATU MOTA | ANTZINATASUN | LANBIDE KATEGORIA | LANALDIAREN % | ORDUAK ASTEAN LANEGUNETAN | ORDUAK ASTEAN JAIEGUNETAN |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 10902 | 289 | 2018/05/16 | etxeko laguntzailea | 65,71 | 26,00 | 0,00 |
| 2 | 3412 | 189 | 2010/12/16 | etxeko laguntzailea | 5,71 | 2,00 | 0,00 |
| 3 | 15202 | 200 | 2019/06/17 | etxeko laguntzailea | 34,29 | 12,00 | 0,00 |
| 4 | 21855 | 510 | 2023/01/23 | etxeko laguntzailea | 21,43 | 7,50 | 0,00 |
| 5 | 13845 | 289 | 2019/02/11 | etxeko laguntzailea | 42,86 | 15,00 | 4,00 |
| 6 | 13845 | 289 | 2021/06/14 | etxeko laguntzailea | 47,14 | 16,50 | 0,00 |
| 7 | 18892 | 289 | 2021/06/16 | etxeko laguntzailea | 42,86 | 15,00 | 0,00 |
| 8 | 3394 | 289 | 2000/11/06 | etxeko laguntzailea | 14,29 | 5,00 | 0,00 |
| 9 | 3419 | 189 | 2007/08/01 | etxeko laguntzailea | 21,43 | 7,50 | 0,00 |
| 10 | 3408 | 289 | 2014/04/07 | etxeko laguntzailea | 31,43 | 11,00 | 1,00 |
| 11 | 3405 | 289 | 2013/01/21 | etxeko laguntzailea | 38,57 | 13,50 | 0,00 |
| 12 | 15533 | 289 | 2019/10/01 | etxeko laguntzailea | 2,86 | 1,00 | 0,00 |
| 13 | 3411 | 289 | 2008/11/03 | etxeko laguntzailea | 78,57 | 27,50 | 6,00 |
| 14 | 3400 | 289 | 2009/06/23 | etxeko laguntzailea | 2,86 | 0,00 | 1,00 |
| 15 | 3396 | 100 | 2005/02/10 | etxeko laguntzailea | 28,57 | 10,00 | 0,00 |
| 16 | 3417 | 200 | 2005/11/10 | etxeko laguntzailea | 55,00 | 19,25 | 0,00 |
| 17 | 16340 | 289 | 2019/12/20 | etxeko laguntzailea | 11,43 | 4,00 | 0,00 |
| 18 | 16434 | 289 | 2020/01/29 | etxeko laguntzailea | 65,71 | 23,00 | 0,00 |
| 19 | 3396 | 100 | 2021/06/01 | koordinatzailea | 28,57 | 10,00 | 0,00 |

**Langileak enpresa hitzarmenean jasotako baldintzetan subrogatuko dira (IX. eranskina)**

## IV. ERANSKINA

## Hizkuntza-arloko konpromiso arduratsuaren eredua

**Lizitatzailearen datuak:**

Izena: .....……

Helbidea soziala: .....……

IFK: ……

Telefonoa: .....,

Posta-elektronikoa: .....

**Ordezkariaren datuak:**

Izen-abizenak: .....……

Helbidea: .....……

NAN: .....,

**ONDORENGO KONPROMISOAK HARTZEN DITU**

Lehenengoa.- Kontratu honen xede den zerbitzura atxikiko dituen langileek zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan emateko ahozko hizkuntza-gaitasun nahikoa izango dute.

Bigarrena.- Langile horiek, beharrezkoa balitz, Udalak baldintza agirietan eskatutako hizkuntza-maila egiaztatzeko deitzen duen proban parte hartuko dute. Proba horretan, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute.

**Lekua, data eta aitortzailearen sinadura.**

# VI. ERANSKINA

## EUSKARA MAILA EGIAZTATZEKO PROBETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA EREDUA

Izena: .....

Helbidea soziala: .....

IFK: ……

Telefonoa: .....,

Posta-elektronikoa: .....

**Ordezkariaren datuak:**

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

NAN: .....,

**ESKATZEN DU**

**Lehenengoa.-** Beheko zerrendako pertsonek parte hartu ahal izatea baldintza teknikoen agirian eskatutako hizkuntz maila egiaztatzeko Udalak deitutako euskara proban

- 
- 
- 
- 

Pertsona horiei deitu ahal izateko ondorengo pertsona izendatzen da harremanetarako:

Izena:
Helbide elektronikoa:

Lekua, data eta eskatzailearen sinadura

## VII. ERANSKINA

**ENPRESAK APLIKATUKO DITUEN KONTZILIAZIO NEURRIAK**

Izena: .....……

Helbidea soziala: .....……

IFK: ……

Telefonoa: .....,

Posta-elektronikoa: .....

**Ordezkariaren datuak:**

Izen-abizenak: .....…….

Helbidea: .....……

NAN: .....,

**JAKINARAZTEN DU:**

**Enpresak aplikatu behar ditjuen kontziliazio neurriak honako hauek direla (X-a jarri):**

- Adingabeak, mendekotasuna dutenak zaintzeagatik lanaldia murrizteko hobekuntzak.
- Ordaindu gabeko baimenak: Eszedentziak, soldatarik gabeko oporrak, soldatarik gabeko egunak.
- Ordaindutako baimenak zaintzarengatik: Ikastetxeko bilerak, aurreko eta ondorengo ahaideen gaixotasuna, mendetasuna duten pertsonak medikura laguntzea eta abar.
- Amatasun baimenak luzatzea.
- Ordutegiaren malgutasuna.

Lekua, data eta eskatzailearen sinadura

## VIII. ERANSKINA

Izena: .....……

Helbidea soziala: .....……

IFK: ……

Telefonoa: .....,

Posta-elektronikoa: .....

**Ordezkariaren datuak:**

Izen-abizenak: .....……

Helbidea: .....……

NAN: .....,

**JAKINARAZTEN DU:**

Konpromisoa hartzen duela zerbitzura atxikitako langileek izaera mugagabeko kontratuak izango dituztela portzentaje honetan: % ……..

Lekua, data eta eskatzailearen sinadura

# ANEXO IX- ENPRESA AKORDIOA

## Acuerdo entre la empresa Gizadi Laguntza Zerbitzuak s.l.- Sad Eskoriatza y la representación de las trabajadoras (ELA)

El presente documento establece los cimientos sobre los que se basarán las condiciones laborales de todas las trabajadoras de ayuda a domicilio de la empresa GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK, empresa que actualmente gestiona el servicio en el servicio de ayuda a domicilio del ayuntamiento de Eskoriatza. A posteriori, serán oficialmente acordadas en un convenio colectivo.

### 1- Ámbito temporal. Vigencia y denuncia

Desde el día 01 de enero del 2024, hasta el 31 de diciembre 2025.

Concluida la duración pactada, el convenio quedará denunciado de manera automática y tras ello se mantendrá la vigencia del convenio hasta la suscripción por ambas partes de otro que lo sustituya.

**2- Continuidad y duración de los servicios:** se procurará que los servicios sean continuados entre sí. De la misma manera, se intentará que cada servicio dure como mínimo una hora.

**3- Trabajo en periodo nocturno.** Se entenderá por trabajo en período nocturno o en turno de noche el efectuado entre las 21:30 a las 8:00 horas.

**4- Bolsa de horas.**

De cara a completar jornadas, los casos nuevos del ayuntamiento de Eskoriatza se adjudicarán por criterio de antigüedad.

**5- Jornada mínima.** A partir del año 2025, la jornada mínima de contratación será del 60% de jornada al mes, teniendo como referencia mensual las 144,72 horas.

### 6- Incrementos y conceptos salariales. (anexo I)

Los salarios se incrementarán de la siguiente forma mientras dure la vigencia de dicho convenio. Los incrementos se aplicarán en todos los conceptos.

**2024:** 20% para todos los conceptos desde el 1 de enero del 2024.

**2025:** IPC+2 garantizando un 10 % para todos los conceptos.

Las tablas salariales se incluyen en el anexo I.

—Pagas extras y vacaciones: se tendrá en cuenta la media de los últimos 6 meses trabajados. Se realizará la misma media para el pago de las vacaciones.

Las nóminas se abonarán entre el día 1 y el día 8 de cada mes.

**7- Licencias retribuidas**

Serán de aplicación tal y como se recogen en el convenio colectivo de la empresa Gizadi Laguntza Zerbitzuak (Sad Aretxabaleta), S.L 2021-2023 (código 2010013101-2013) excepto las licencias mejoradas en el estatuto de los trabajadores (publicadas en el BOE a fecha 29 de junio de 2023):

*1.- Permisos de conciliación: Permiso por accidente o enfermedad grave, hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización: 5 días. Se incluye el cuidado de cualquier persona que conviva con la persona trabajadora.*

*2.-Nuevo permiso por razones justificadas de urgencia familiar.*

*3.- Nuevo permiso parental de 8 semanas NO retribuido.*

*4.- Equiparación de derechos de parejas de hecho y de cónyuges.*

**8- Horas de médico:** 8 horas al año, incluidas las de acompañamiento.

**9- Subrogación:** el personal será subrogado con las mismas condiciones laborales en caso de que entre otra empresa a gestionar el servicio.

**10-Inaplicación:** En caso de que la empresa pretendiera la inaplicación temporal del presente convenio colectivo (por motivos económicos, técnicos, organizativos o de producción), deberá poner dicha pretensión en conocimiento de su Comisión paritaria con una antelación mínima de 15 días al inicio del período de consultas al que se refiere el art. 82.3 ET. En caso de que no se llegara a un acuerdo con la representación de las personas trabajadoras en el período de consultas, y los procedimientos para la resolución de conflictos de los acuerdos interprofesionales que fueran de aplicación no resolvieran la discrepancia (el arbitraje se producirá únicamente por el sometimiento expreso de ambas partes), será necesario el acuerdo entre ambas partes

(representación de la empresa y mayoria de la representación de las personas trabajadoras) para someter el desacuerdo sobre la inaplicación al ORPRICCE o, en su caso, a la CCNCC.

**10-** En todo lo no dispuesto, se aplicará el convenio colectivo de la empresa Gizadi Laguntza Zerbitzuak del servicio de ayuda a domicilio de Aretxabaleta 2021-2023. (código 2010013101-2013)

## ANEXO I: TABLAS SALARIALES

| 2023 (tablas actuales) | | | 2024 (incremento 20%) | | | 2025 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hora | Mensual | | Hora | Mensual | IPC+2 garantizando un 10% |
| Salario base | 9,57 | 1384,97 | Salario base | 11,48 | 1661,96 | IPC+2 garantizando un 10% |
| Desplazamiento (caso y caso) | 1,29 | -------- | Desplazamiento (caso y caso) | 1,55 | ------- | IPC+2 garantizando un 10% |
| Festivos / hora | 13,13 | --- | Festivos / hora | 15,76 | --- | IPC+2 garantizando un 10% |
| Antigüedad / hora | 0,24 | 34,74 | Antigüedad / hora | 0,29 | 41,97 | IPC+2 garantizando un 10% |

**Representación de las trabajadoras (ELA):**

Itsaso Elkorobarrutia Bengoa:

Elena Molina Fuentenebro:

**Representación de la empresa:**

Amalia Zarate Rodriguez

Lorea Aranburuzabala Laspiur:

En Arrasate, a 29 de septiembre del 2023